



### III. ERANSKINA

#### OINARRIAK

**2021/2022 IKASTURTERAKO BI ORDUKO IKASTAROEN DEIALDIA, 2. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EGIAZTATUA IZAN (euren lanpostuko eskakizuna) ETA 3. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA ATERA NAHI DUTENENTZAT.**

#### 1.- Helburua

Euskararen III. Plan Gidariari jarraiki (Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 20an onartua) hauxe da deialdiaren helburua: euren lanpostuko hizkuntza-eskakizuna (2 HE) beteta eduki arren euskara hobetu gura duten langileei aukera ematea **lan orduetan** ordu biko euskara ikastaroak egiteko hauetako modalitatetan:

- **Administrazio Talde batean (presentziala)**
- **Beste talde batzuetan (presentzian, telematikoa) (ez da autoikaskuntza) edo mistoan** (presentziala eta telematikoa).

#### 2.- Ordu kreditu sistema

2005eko azaroaren 30eko aginduaren bidez IVAPek eta UPV/EHUK sinatu zuten hitzarmenari jarraituz, **ordu kredituen sistema ezarri** da (2005eko abenduaren 19ko EHAA (239. zk.), I. kapitulua). Agindu hori 2006ko irailaren 30ean sartu zen indarrean, hau da 2006/2007 ikasturterako. Horrela, ordu kreditu negatiboa dutenek ezin izango dute liberaziorik izan 2021/2022 ikasturterako.

#### 3.- Betebeharreko baldintzak

Deialdi honetan parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira:

- **UPV/EHUKo administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko kidea** izatea, eta 2. Hizkuntza eskakizuna gaintua izatea (norberaren lanpostuak duen eskakizuna) deialdi hau argitaratzen denean, edota hizkuntza-eskakizunak egiaztatze indarrean dagoen deialdian egiaztatzea.
- UPV/EHUKo administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko kidea izatea (karrerako funtzionarioa, lan-kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa eta aldi baterako lan-kontratu duen langilea, lanpostu hutsean zein ordezkian egon).

#### 4.- Irizpideak lehenetsun mailaren arabera

**4.1.-** Unitate bakoitzaren % 50 gutxienez ziurtatuta geratu behar da.

**4.2.-** Euskara eskoletara joateko baimenak emateko irizpideak plangintzaren helburu nagusiei lotuta daude eta honako hauek dira lehenetsunaren arabera antolatuak: lanpostua kokaturiko unitate mota (AE, A, B, C, D) eta eskatzailearen lan harremana (karrerako funtzionarioa, lan-kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa, aldi baterako lan-kontratu duen langilea). Lehenetsun honi jarraituko zaio:

- Lanpostuan eskatzen zaien 2. Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan-kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- Lanpostuan eskatzen zaien 2. Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan-kontratu duen langileak direnean.
- Arestian aipatzen diren ataletan sartzen ez diren gainontzeko langileak, ordezkioak egiten ari diren bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako lan-kontratu duen langileak orokorrean, lehenetsuna jartzeko irizpideak honako hauek izango dira:



- 1) Euskara ikasten egon izana 2020/2021 ikasturtean.
- 2) Gainditutako euskara maila (lehentasuna mailarik handienak du).
- 3) UPV/EHU lan egindako egunak.

Euskara ikasten egon izana eta maila, gainontzeko langileentzat ere kontutan hartuko da.

## **5.- Eskaera**

### **5.1.- Ikasturte osorako eskaera**

Eskaerak urte osorako izan behar du. **Otsailerako deialdian ez da 2 orduko eskaera berririk onartuko** honelako ikastaroetan.

**Oharra:** Langileak plaza hutsa betetzen ez duelako edo ordezkioak egiten dituelako, lanpostuz aldatzen baditu bi orduko liberazioa duen bitartean (lanorduen barruan), jakinarazi egin beharko dio nagusi berriari liberazioa duela, nagusi berriak ez baitauka zertan liberazioaren berri izan. Nagusiak eragozpenik badauka liberaziorako, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzarekin jarri beharko da harremanetan eta idatziz azaldu zeintzuk arrazoi dituen baimena ukatzeko. Idatzi hori kontuan hartuta, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza izango da azken erabakia hartuko duena.

### **5.2.- Eskaerak betetzeko zehaztasunak**

- Liberazio modulu bakoitzeko eskari bana bete beharko da.
- Eskari orrian eskatzen diren datu guztiak egon beharko dute zehaztuta, batez ere **zein herritan, zein ikastaro mota, zein modalitetan eta zein ordutegitan** eskatzen den, errektoreordetzako langileei lana errazteko.
- Komeni da beste ikastaroetan ere izena ematea, 2 ordukoan (lanorduz kanpo) onartuko ez zaituztela ustez gero.
- Ordutegi bereziak direla eta, euskara lanorduz kanpo ikastera behartuta dauden guztiek, 2 ordu eta erdiko lan murrizketa eskuratzeko (onartuak izatekotan), eskaeran **"Lanorduetan"** jarri behar dute.
- Eskaera egitean, IVAPeko 2.HE gaindituta eduki behar du eskatzaileak, edo indarrean dagoen deialdian egiaztatzea, edota IVAPeko hizkuntza-eskakizunen baliokidetzaren erregistroan jasota egotea. Honi buruz informazio gehiago IVAPeko "baliokidetzak" webgunean:
- <https://www.ivap.euskadi.eus/hizkuntza-eskakizunak-baliokidetzak/z16-a3heinf/eu/>
- Aldi baterako kontratua duten langileek eskariarekin batera lan kontratuaren kopia bidali beharko dute. **Eta egiaztatu beharko dute gutxienez 2021ko abenduaren 31ra arteko lan-kontratua dutela.**

### **5.3.- Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea **apirilaren 28tik maiatzaren 17ra** izango da (biak barne).

Ez da epea kanpo aurkeztutako eskaririk onartuko.

**Oharra:** Eskariak egiteko azken eguna helduta langileak ez badu nagusiaren baimenik lortu, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango du baimen hori. Baina eskaria bera, sinadura gabe, epe barruan bidali beharko du.

### **5.4.- Eskaerak non aurkeztu**

Derrigorrez, eskaera guztiak **UPV/EHUko Egoitza Elektronikoa**ren bidez edo **UPV/EHUko Erregistro Orokor**aren bidez aurkeztu behar dira; edo, hala badagokio, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua ezarritakoaren arabera. **Erregistroan zigitutako eskaeraren kopia bat posta elektronikoa** bidaliko da [euskara-plangintza@ehu.eus](mailto:euskara-plangintza@ehu.eus).

**Oharra:** Nagusiek baimena ukatuz gero, txostena egin beharko dute **baimena ez emateko arrazoiak azalduta. Langile bakoitzeko txosten bat helarazi beharko da. Ez dira zerbitzu oso baterako txosten bateratuak onartuko.** Txostenak Euskalduntze Batzordeari bidali beharko zaizkio, 3 laneguneko epean, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzak bi orduko liberazioetarako onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duenetik kontatzen hasita. Epe hori



erreklamazio egunekin bat etorriko da (**maiatzaren 20, 21 eta 24**) eta **UPV/EHUren Egoitza Elektronikoko Erregistro Elektronikoi bidaltzeaz gain, posta elektronikoz aurreratu** beharko dira helbide honetara: [euskara-plangintza@ehu.eus](mailto:euskara-plangintza@ehu.eus).

#### 5.5 Eskaerak nori bidali

**Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzara** bidaliko dira eskaerak.

### **6.- Lizentzia erabiltzeko baldintzak**

#### 6.1.- Klaseen egutegia eta egindako huts egiteak zuritzea

Ikastaro hauek eskatzen dituzten langileek IVAPek jartzen duen egutegia onartu behar dute, IVAPek antolatutako taldeetan baldin badaude. IVAPek antolatutako taldetik at baldin badaude, kasuan kasuko euskaltegiak ezarritako egutegia bete beharko du ikasleak.

Hau honela, lanorduetan euskara ikasteko onartua izan den langileak ezin izango du beste eratako ikastarorik egin ezta oporretarako egunik hartu (ezinbesteko kausak salbu), baldin eta horrek euskaltegiko klaseetara huts egitea eragiten badio. Horrelakoetan, huts egiteak ezin izango dira zuritu.

**Huts egite guztiak posta arruntez edo elektronikoz zuritu behar dira**, lizentziei eta baimenei buruzko arautegiarekin bat etorritz.

Ikaslea ez bada joan euskara eskolara laneko arrazoiak direla medio, interesatuak idazkia bidali beharko du Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzara arrazoiak azalduz eta bere nagusiaren oniritziarekin.

Huts egiteak zuritzen ez badira, langilea eskolatik kanpo utziko du Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzak.

#### 6.2.- Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeako frogak

Liberazio hauetan onartutako langileek (bai lanorduetan, bai lanorduz kanpo matrikulak ordaintzen zaizkienean) hizkuntza eskakizunak egiaztatzeako aldiro egiten diren frogetara aurkeztu beharra izango dute, betiere ondoren aipatuko ditugun urratsak egiten ari badira:

- **Hirugarren hizkuntza eskakizunera** aurkezteko, euskalduntzeako C1.2. azpimaila egiten aritzea.

Irizpide hau ez betetzeak liberazio berririk ez eskuratzea ekarriko du.

#### 6.3.- Liberatuta dagoen batek lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen badu.

2 orduko liberazioa duen langileren batek 3. hizkuntza eskakizuna lortuz gero, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak liberazioa kenduko dio, betiere, IVAPek hutsune hori betetzeko aukera badauka. IVAPek ezinezkoa badu hutsune hori betetzea, langileak lanorduetan euskara ikasten jarraitu ahal izango du ikastaroa bukatu arte, baina horretarako, nagusiaren oniritzia beharko du.

### **7.- Onartuen zerrendak**

Aurkezteko epea bukatu eta eskariak aztertu ondoren, **onartuen** eta baztertuen zerrendak argitaratuko dira **ehutaletan** eta Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren web orrian ere: <http://www.ehu.eus/eu/web/euskara>

Behin-behineko zerrendak **maiatzaren 19an** argitaratuko dira eta **maiatzaren 20, 21 eta 24an** izango dute interesatuek erreklamazioak aurkezteko epea. Berauek idatziz **zuzendu behar zaizkio Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko** errektoreordeari UPV/EHUko Egoitza Elektronikorekin edo Erregistro Orokorren bitartez eta **posta elektronikoz** aurreratu helbide honetara: [euskara-plangintza@ehu.eus](mailto:euskara-plangintza@ehu.eus).

Erreklamazioak aurkeztu ondoren, eta guztiak aztertu ondoren, behin betiko zerrendak **ekainaren 2tik aurrera** argitaratuko dira lehen aipatutako iragarki tauletan, euskalduntze batzordea bildu ondoren